

IKASTOLAK



2003
URRIA

Informatzen

LAB SINDIKATUAREN WEB ORRIA

LAB sindikatuak badu bere WEB orria.

Orain poliki-poliki sektore eta arlo bakoitzak dagokionarekin edukiz betetzen hasiko da.

Zuentzako baliogarria izango delakoan gaude.

Bere helbidea hanako hau da:

www.labsindikatuua.org

HAURESKOLAK KONTSORTZIOAK SORTUTAKO HAUR ESKOLETAKO LANPOSTUAK

0 urtetik 3 urtera bitarteko haurren Haur Eskolak arautzen dituen dekretuaren garapenak Ikastetxe Publikoan sare bat sortzea aurreikusten du. Sare hau Eusko Jaurlaritzaren eta harekin bat egiten duten Udalen artean sortutako Kontsortzioa Publiko baten menpe egongo da.

2003ko azken hiruhilekoan Haurreskolak kontsortzioak enplegu-eskaintza publikoa egiteko asmoa dauka.

Eskaintza horretan Haur Eskola horietako hezitzaileentzako lanpostuak hornitu nahi dira.

Deialdia Haur Hezkuntzako espezialitatea duten maisu/maistra titulua duten pertsonentzako izango da edo Eskolaurre espezialitatea duten Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasleentzat eta Haurtzaindegiko Teknikari Espezialistentzat eta Haur Hezkuntza Goi Mailako Teknikarientzat.

Postuen arabera kreditatu beharko dituzten hizkuntza eskakizunak honakoak izango dira:

PL1 edo baliokideak eta PL2 edo baliokideak.

Langileak hautatzeko baldintzak, deialdi publikoa egiten denean zehaztuko dira.

Hautaturiko langileak zuzenean egongo dira Haurreskoak kontsortzioaren menpe lan-kontratazio erregimenean.

HEZIKETA BEREZIKO LAGUNTZAILEAK

Publikan lan egiten duten laguntzaileek titulo berriak atera beharko dituzte, hori horrela izanda, eta oraindik ezer ofizialki ez dagoen arren, pentsa daiteke ikastoletako heziketa bereziko laguntzaileek ere atera beharko dituztela.

ESKATUKO DEN TITULAZIOA:

■ HH ko Goi mailako Teknikari *edo*

■ Goi mailako Hezkidetzako (Integración social) Teknikaria.

MATRIKULAZIO EPEAK

Azaroaren 2. Hamabostaldian egin behar da matrikula.

MATRIKULATZEKO LEEKUAK:

GIPUZKOA:

--Plaiandi BHI (IRUN) *edo* Oianguren BHI (ORDIZIA).

BIZKAIA:

--Hezkidetz (Integración Social): Tartanga (ERANDIO) *edo* Botika Zaharra (BILBO).

--HH Goi mailako Teknikaria: Ezkurtze (BILBO) *edo* Gernikako Institutoan.

ARABA:

Gipuzkoan *edo* Bizkaian matrikulatu behar dute.

MATRIKULATU AHAL IZATEKO BALDINTZAK:

Matrikulatu nahi duenak honako baldintza hauek bete behar ditu:

1. BALDINTZA: Unibertsitateko ikasketak izatea, *edo* UBI(COU) egina *edo* Goi mailako Teknikariaren bat (LHII/FPII)

Hauetako batere ez baldin baduzu:

2. BALDINTZA: 25 urtetik gorakoentzat Unibertsitateko sarbidea (Acceso universidad) *edo* 21 urtez gorakoentzat Heldutasun frogak (pruebas de madurez).

NOIZ ESKATUKO DITUZTE TITULAZIO BERRIAK?

Publikakoentzat hauek izango dira datak:

2004-2005 ikasturtean irailaren 1ean.

Data honetan 1. BALDINTZAKOAK, Goi mailako zikloko %50 gaindituta eduki beharko dute *eta* 2. BALDINTZAAAKOAK, Unibertsitatean matrikulatuta egotea.

OHARRA: Bai orain *eta* bai gerora ere; Ezintasun *edo* gutxitu psikiko *edo* fisikoko Goi mailako teknikari (disminuidos psíquicos - físicos) titulua baldin badu, beste titulorik atera beharrik ez du, konbalidatuta geratzen zaiao.

INFORMAZIO GEHIAGO BEHAR BALDIN BADUZU, DEITU LASAI



Bilbo.Rekalde Zumd. 62-behea.KP:48010. Tlf.944706926.Post Elek.irakbiz@lab-sindikatuua.org
Donostia. San Bladi 1 behea. KP:20013 Tlf.943458562.Post. Elek. irakgip@lab-sindikatuua.org
Gasteiz.Bueno Monreal, 10-behea. KP: 01001 Tlf. 945258404.Post. Elek. irakara@lab-sindikatuua.org
Iruñea.Mercaderes, 25-1. KP: Tlf. 948210422. Post. Elek. iraknaf@lab-sindikatuua.org
Baiona:Marengo karrika,13. Tlf. 05595020. Post. Elek. baiona@lab-sindikatuua.org